

EUSKOTRENEK BERE HISTORIAKO ERREGISTRO OROKOR ONENAREKIN ITXI DU 2019A

- Bidaiari globalak 41 milioi baino gehiago izan dira, Euskotreneko historian kopururik handiena.
- Trenbidea gehien hazi den garraibidea da, ia 24 milioi bidaietara iritsiz.
- Metroaren 3. lineak, bere igoyerarekin jarraitzen du, 2018ko kopuruari %5,90 bidaiari gehiago gehituz.
- Deba-Zumaia ibilbidean zailtasunak eta trasbordoak izan arren, trenaren erabiltzaileek %6,48 egin dute gora Gipuzkoan aurreko urtearekin alderatuta, Topoaren hazkundeak bultzatuta.
- Gasteizko tranbiak bere errekor historikoa gainditu du berriro eta unibertsitateraino iristeko prestatzen ari da.

Euskotrenek 2019ko ekitaldia bere historiako datu globalik hoberenarekin itxi du (trenbidea, metroa, tranbia, funikularra eta autobusak), 41.167.036 bidaiari garraiatuz.

Konpainiak azken urteotan eskaintako zerbitzua hobetzeko egindako esfortzuak lorpen hau lortzea ekarri du (maiztasun gehiago, unitate berriak, puntualtasun handiagoa).

Garraibideen arabera, trena da gehien erabiltzen den modua, erabiltzaile guztien %58arekin, 23.856.799, aurreko urtean baino %6,11 gehiago.

Topoa da Gipuzkoan gehien igo den korridorea, %7,02 Amara eta Hendaia artean, eta %11,85 Lasarte eta Amara artean. Guztira, 13.064.792 bidaiari erregistratu dira Gipuzkoan, 2018an baino %6,48 gehiago. Hori guztia, Deba eta Zumaia artean trenbidea moztu eta, horren ondorioz, garraio aldaketa izan arren; izan ere, Eibar-Zumaia korridorean %11,07 jaitsi dira bidaiariak abenduan.

Bizkaian, Bilbo eta Amorebieta arteko tartea izan da igoyerarik handiena duena, %9,74. Bizkaian egindako bidaiak 10.792.007ra igo dira, %5,66 gehiago. Datu horietan 3. linea sartzan da, bere gehikuntzarekin jarraitzen duena (+%5,90).

Tranbia-zerbitzuei dagokienez, Gasteizko tranbiak 2018ko errekorra hautsi du berriro, 8.338.025 erabiltzailera iritsiz, eta otsailean unibertsitatera arteko adar berria martxan jartzeko prestatzen ari da, baita tranbia “estraluzeak” sartzeko ere. Beste alde batetik, Bilboko tranbiak emaitza positiboak izan ditu berriro, aurreko urtean baino %2,23 bidaiari gehiago, eta 3.059.513ko kopurua lortu du.

Gehien erabili diren tren eta tranbia geltokiak hauek izan dira: Durango (491.842), Ermua (429.372) eta Bermeo (262.471) Bizkaian; Amara (2.355.818), Anoeta (1.050.043) eta Irun (878.809) Gipuzkoan; Ribera (306.163), Abandoibarra (292.892) eta Uribitarte (292.393) Bilboko tranbian; Angulema (1.413.580), Legebiltzarra (1.159.608) eta Europa (798.150) Gasteizko tranbian; eta Zazpikaleak (3.320.659), Uribarri (698.162) eta Otxarkoaga (694.591) metroaren 3. linean.

Jendetza gehien bildu zen egunei dagokienez, Gipuzkoan abuztuaren 14an izan zen, Aste Nagusian, eta urriaren 28an, berriz, Bizkaian, Gernikan azken

asteleheneko azoka ospatu zen egunean. Arabako hiriburuan, bestalde, abenduaren 19an izan zen tranbiaren erabiltzaileen mugimendu handiena.

Azkenik, Euskotrenek operatzen dituen Gipuzkoako kontzesioetako autobusek %3,11ko hazkundera izan dute eta ia 6 milioi bidaiari izan dituzte, nahiz eta 5.912.699an geratu den.

Igorpen data: ostirala, 2020ko urtarrilaren 10a

Euskadi, auzolana, bien común

